



EBAZPENA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2019KO UZTAILAREN 19KOA. EBAZPEN HONEN BIDEZ ARGITARA EMATEN DIRA FISIOTERAPEUTA, TERAPEUTA OKUPAZIONAL, HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA, TRANSKRIBATZAILE EDO MATERIALAREN EGOKITZAILE ETA ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETE KATEGORIETAKO ORDEZKOGAIEK ESKATU DITUZTEN LURRALDE HISTORIKOEN, DESTINOAREN ETA LANALDI MOTEN AUKEREN ALDAKETAK, 2019-2020KO IKASTURTERAKO ESLEITZEKO PROZEDURA TELEMATIKOARI DAGOKIONEZ.

2019ko uztailaren 5eko ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, epea eta prozedura ezarri zen fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietako ordezkogaiak lurralde historikoen, destinoaren (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motaren inguruan eginda zituzten aukerak aldatu ahal izateko, 2019-2020 ikasturterako esleipen-prozedura telematikoei dagokienez.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, argitara eman behar dira behin-behineko izaerarekin eskaerak dagokion epean eta forman aurkeztu duten pertsonen aukerak Lurralde Historiko, destino (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motei dagokienez.

Horren arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Onartutako eskabideak. Egindako aukeren publizitatea.

Ebazpen honen bidez argitara ematen dira behin-behineko izaerarekin ordezkogaiak lurralde historikoen, destinoaren (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi-motaren inguruan egin dituzten aldagetak 2019-2020 ikasturterako lanpostuak era telematikoan esleitzeko prozesurako, 2019ko ekainaren 4ko Aginduak ezarritakoari jarraiki, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez lanpostuaren adjudikazioa arautzen baitzaie fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinu-hizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte direnei, eta zeinaren bidez ezartzen baita lan-kontratudun langile finkoei, mugagabe ez-finkoei eta bitartekoei zentroen urteko esleipena egiteko prozedura, fisioterapeuta, terapeuta okupazional eta hezkuntza-laguntzako espezialista kategorietan.

Onartutako eskabideak I. Eranskinean jasotzen dira, kategorietan banatuta.

Bigarrena.- Ez onartutako eskabideak.

Ez dira onartzen, epez kanpo aurkeztu direlako, II. Eranskinean jasotzen diren eskabideak.

Hirugarrena.- Ondorioak.

I. Eranskinean jasotzen diren pertsonak 2019-2020ko esleipen-prozedura telematikoan parte hartuko dute bertan jasotzen diren lurralde historiko, destino (bakarrik lanaldi partzialentzat) eta lanaldi motarekin.



Prozesu hori bukatu ondoren, fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaille eta zeinuhizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko ordezko gaien zerrenda birbarematzeko prozesuan adierazi zituzten aukerekin jarraituko dute 2019-2020ko ikasturtean eskatzaileek. Aukera horiek 2019-2020ko ikasturtean ordezkapenak egiteko Hezkuntza Sailak argitara emango duen ordezko gaien behin betiko zerrendan jasota agertuko dira.

II. Eranskinean jasotzen diren pertsonen 2019-2020ko esleipen-prozedura telematikoa parte hartuko dute fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaille eta zeinuhizkuntzako interprete kategorietan ordezkapenak egiteko ordezko gaien zerrenda birbarematzeko prozesuan adierazi zituzten aukerekin. Aukera horiek 2019-2020ko ikasturtean ordezkapenak egiteko Hezkuntza Sailak argitara emango duen ordezko gaien behin betiko zerrendan jasota agertuko dira.

Hala ere, kasu guztietan, bakarrik lanpostu bat esleituko zaio ordezkapenak egiteko hautagai-zerrenden parte diren horiek esleipen-prozesu telematikoa eskaerak egiten hasteko epea hasi baino hiru egun lehenago prest moduan badaude, lan-egoera hori eskaerak aurkezteko epea baino hiru egun lehenago aldatzeko aukera izango dute dagokion dokumentazioa aurkeztuz.

Laugarrena.- Erreklamazio epea.

Ebazpen honen aurka 2019ko uztailaren 19tik uztailaren 22ra (biak barne) aurkeztu ahal izango dira erreklamazioak dagokion moduan sinatuta hezk.sind@euskadi.eus posta elektronikoa.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 19an.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

JON AGIRRE HUERGA